


#10EgunezPentsamenduKritikoa 3: Hipotesi bat baino gehiago egin dituzu?



Hipotesi desberdinen azterketaren garrantzia

Zerbait ulertu edo azaldu nahi dugunean, oso garrantzitsua da jakitea azaldu edo ulertu nahi dena argudiatzeko modu ugari egon daitezkeela; hau da, hipotesi desberdinetan pentsatu behar dugu. Ondoren, hipotesi horietako bakoitza sistematikoki frogatzeko eta ezeztatzeko moduak aztertu behar dira (metodo zientifikoa). Hala, lan-hipotesi horien artean ezeztatu ez den hipotesiak azalpen zuzena izateko probabilitate handiagoa du, besterik gabe lehenengoa bururatutako hipotesia aukeratu izan bagenu baino.

Hipotesiak planteatzerakoan, oso garrantzitsua da ulertu edo azaldu nahi dugunaren inguruko informazioa arakatzea. Zenbat eta gehiago jakin zerbaiti buruz, orduan eta errazagoa izango da hipotesi desberdinak planteatzea eta burura datozkigun ideia edo hipotesi okerrak baztertzea.

Zientzialariak ohituta daude hipotesi desberdinekin lan egitera, baina nola eragiten du hipotesi desberdinen azterketa gure eguneroko bizimoduan? Eskuartean dugun informazio bati

sinesgarritasuna emateko, komeni da argudiatzen dena aztertzea eta azalpenak emateko beste modurik badagoen ikustea. Hau da, egiaztatu behar da ea baden beste modu batera azaltzerik. Pentsalari kritiko batek informazio bat jasotzen duenean, pentsatuko du ea badagoen informazioan baieztatzen den hori beste modu batera azaltzerik (ea beste hipotesirik dagoen), eta jasotako informazioa kontrastatuko du. Gainera, bere egunerokoan hartu beharreko erabakietan ere, erabaki horiek izan ditzaketen erantzun edo ondorioei buruz hausnartuko du; hau da, hartu beharreko erabakiek ekar ditzaketen ondorioak hartuko ditu kontuan.

Ez tematu norberaren hipotesia defendatzen.

Normalean norberaren hipotesia edo argudioa hoberena dela pentsatzera jotzen dugu. Baina norberaren hipotesia edo arrazoibidea izateak ez du esan nahi benetakoa denik, ebidentziekin frogatu behar baita. Oso garrantzitsua da, beraz, norberaren hipotesi edo argudioa zalantzan jartzea eta beste batena izango balitz bezala aztertzea: baztertzeko arrazoiak bilatu, beste aukera batzuekin alderatu, eta abar.

Pentsalari kritiko batek, zurrumurruak eta engainuak baztertzeko dituen bezala, saiatuko da besteek ez ditzaten bere akats berak egin kosta ahala kosta arrazoiak izaten saiatzeagatik. Hala, gai bati buruzko iritzia eman aurretik, esan behar duenari buruzko hausnarketa sakona egingo du, besteen ikuspuntuak eta iritziak kontuan hartuz.

Hipotesia ezeztatzeko aukera / Hipotesien faltsabilitatea

Gertaeren berrespen independentea metodo zientifikoaren oinarrietako bat dela esan dugu lehen; bada, teoria (edo hipotesi) baten faltsabilitatea edo ezeztagarritasuna da funtsezko beste oinarria.

Horren arabera, edozein proposizio zientifikok gezurtatzeko aukera izan behar du. Hau da, metodo zientifikoak errefusatu egiten ditu egia absolutuak; beraz, proposizio zientifikoak ezingo dira inoiz guztiz egiazkotzat jo, "ez gezurtatutzat" baizik.

Baina hori ez da proposizio zientifikoekin bakarrik gertatzen. Edonoren egunerokotasunean sor daitezken eztabaidetan, inork ez du egia absolutua, eta argi izan behar da edonoren iritzia ezeztatu daitekeela. Norbaiten argudioa ezeztatzerakoan, kontrargudio bat erabili behar da adierazitako tesia edo ideia okerra edo faltsua dela erakusteko. Ideia edo argudio bat ezeztatzeko erabiltzen diren kontrargudioek, sinesgarriak izateko, ebidentzietan oinarrituta egon behar dute, eta horiek ere ezeztagarriak izan behar dute.

Pentsalari kritiko batek, beraz, beste pertsona baten baieztapen bat edo bere defentsarako erabiltzen dituen argudioak ezeztatzerakoan, ebidentzietan oinarritutako kontrargudioak erabiliko ditu. Kontrargudioak errespetuz eta besteak ulertzeko moduan azalduko ditu, inor barregarri utzi gabe eta erruki faltsua erakutsi gabe; bestela, nahiz arrazoirik ez izan, kontrargudioan emandako azalpena gaitzetsi dezake.

Atala honetan aipatutakoagatik guztiagatik, eztabidaezina da hipotesiek duten garrantzia, eta ez bakarrik zientzian eta metodo zientifikoan, baita gure eguneroko bizimoduan ere.